

ELORRIO. Turismo Kontseiluak sustatuta egin dabe ekimena

Uria batzen dauen postal bildumea kaleratu dabe


Uriko hiru argazkilarik ataratako argazkiek osotzen dabe bildumea

Aitziber Basauri

Herriko hiru argazkilarik ataratako argazkiak, Elorrioko postal bildumea kaleratu barri dabe Turismo Kontseiluaren ekimenez. Gotzon Garaizabalek, Segun Lazkanok eta Luis Madinak egin ditue argazkiak, eta «Elorriok adierazgarri dituen kontzeptuak erakutsi» gura izan ditue. Holan azaldu dau Garaizabalek. Paisaia, kultur ekitaldiak eta ohiturak eta arkitekturea erakusten dira.

Argazkiak aukeratzean uriak daukan turismo motea hartu dabe kontuan, Lazkanok esan lez. «Turismo erlijiosoa erakartean dau Elorriok. Sortzez Garbiaren basilikea ikustera datoz gehienak; eta Balendin Berrio-Otxoagaz loturea zuzena da. Euskal Herriatik bertotik datozenak kontuan hartuta, barriz, armarriei eta arkitekturari jagokoa aberastasuna erakusten da. Euskal folklorea be batu dogu atzerriketako datozanak kontuan hartuta». Kolorea eta zuri-baltza eskaintzea «garrantzitsua» dala uste dabe.

Ohiko postalei desbardinak egin gura izan dabez, Madinak dinoenez. «Postalen ohiko dinamikeagaz apurtzen ahalegindu gara. Jarraipena emotea da asmoa; eta ekimen polita dala deritxagu gure etxea erakustea». Garaizabalek bide beretik esan dauenez, «Elorriok beste hainbat elementu adierazgarri be



AITZIBER BASAURI
Madinak, Garaizabalek eta Lazkanok egin ditue argazkiak.

baditu, adibidez Argiñeta. Baina, era desbardinean erakutsi gura izan dogu uria. Ganera, jarraipena eukitea danetz asmoa, beste horreetarako denporea eukiko dogu. Ez dira daukaguzan argazkiriak politenak, baina, bai adierazgarrienak». Lazkanoren ustean, «Elorrioren gitxi-gorabeherako plano bisuala emoten dabe postalek».

Turismo Kontseilutik ekime-

nak harrera ona eukiko dauela uste dabe. «Turismo Bulegotik esan deuskue postalak eskatzen dirala, baina ez dagozala». Elorrioko dendetan jarri gura ditue salgai; landetxeetan eta hotelean be. «Durangaldera eta Bilbora zabaltzea be gura dogu».

Udalan dagoz salgai postal bildumak dendariak erosi daiezan. Jenteaurrera 0,75 eurotan salduko da postal bakoitza.

DURANGO. Zapatuetan izango dira saioak

Herria auzo alkarteak hainbat kontzertu gertau dauz abuzturako

A.B.

Durango Herria auzo alkarteak hainbat kontzertu gertau dau abuzturako. Auzo alkartearen tabernearen aurrean eskainiko dabez kantaldiak, zapatuetan, 22:30ean. Abuztuaren 3an hasi eta hilaren 31ra arteko egitaraua gertau dabe Herria auzo alkarteak kideak.

Plaentxi Duoa taldeagaz hasiko dabez musika emonaldiak, abuztuaren 3an; bolero doinuak eukiko dabez nagusi. Abuztuaren 10ean, barriz, pop-ari egingo deustie tarteak, besteren artean. Pascual solistak eskainiko dau kontzertua, Herria auzo alkartearen ekimenez.

Ukrainako eta Argentinako musika entzuteko aukerea

San Roke eguna be ospatuko dabe Herria auzo alkarteak kideak. Ukrainako musik tradizionala entzuteko aukerea eskainiko dabe, abuztuaren 16ean. Ganera, hilaren 17an, tangoak eta Argentinako musika tradizionalagaz gozetako aukerea eukiko dabe hurreratutakoek. Jonuk eskainiko dau kontzertua, abuztuaren 24ean.

Abuztuaren 31rako gertau dabe azkenengo kontzertua. Vicente Ramirezaren eskutik, rancherak, boleroak... entzuteko aukerea izango dabe Herria auzo alkartearen tabernara joandakoek.

AGENDA

DURANGO

Erakusketea: Bingen De Pedoren *Bajo Cielo* margo erakusketea dauka edegita Durango Arte eta Historia Museoa. Bergaran jaioa da De Pedro eta arte ikasketak egin dauz Parisen eta Gasteizen. Erakusketea abuztuaren 31ra artean izango dabe zabalik

Erakusketea: *Nortasun kontua* erakusketea dago edegita Beitu Art Galleryn. Abuztuaren 10era artean izango dan erakusketa hainbat artistaren beharrak ikusi ahal izango dira. Besteak beste, Zumeta, Cardenas eta Dasnoy-ren artelanak

Erakusketea: Salvador, Nikaragua eta Guatemalako hainbat proiekturen ganeako argazki erakusketea dago edegita,

Berbaro tabernan. Maier Alberdi durangarrak egindako beharrak bihar artean ikusi leitez.

GARAI

Kontzertua: Hyssopus eta Bat Bitten taldeek kontzertua eskainiko dabe, gaur, Habeas Corpus eta EH Sukarra taldeak batera. Garaiko santixauen barruan antolatuta kontzertua 22.00etan hasiko dabe.

ELORRIO

Lehiaketea: Parra taberneak udako argazkien lehiaketea eratu dau, bigarren biderrez. Diapositiba formatuan aurkeztu behar dira beharrak — zorti diapositiba aurkeztu behar dira—. Margoa Foton laga leitez beharrak, irailaren 30a baino lehen.

Altzerreka Jauregiaren nondik norakoak batu ditue kaleratu barri daben liburuxka baten

Aitziber Basauri

Altzerreka Jauregitik Alkartu Gastronomía eta Olgeta Alkartara liburuxkea kaleratu dabe, Elorrioren. Alkartu alkartearen egoitzea dan Altzerreka Jauregiaren nondik-norakoak batu ditu hor Igor Basterretxeak.

Alkartu 1974an jaio zan, eta badira bi-hiru urte jauregiaren nondik-norakoa ezagutzeko «arrenkurea» izan dabela. Horixe dino Jose Ramon Lazkanok, Elorrioko alkartearteko lehendakariak. «Jauregiak galdetu izan deuskue askotan, eta interesgarri jo genduan hori ikertzea. Alkarteko bazkide eta sortzaileetarik bat izan da-

nak, Carlos Palaciosen planteau eban ideia».

Batetik, XVIII. mendeko gizartea batu ditu Basterretxeak. «Burdin-merkataritzan, 1. mailako uria izan zan Elorrio. Ikusi beharko litzake ia Bilbo ostean ez ete zan izango hurrengo uri garrantzitsuena, kokapenagaitik eta burdin-merkataritzegaitik. Inoiz ezagututako Elorrio handiena izan zan. Bertoko merkataria Sevillara joan ziran beharrera, eta irabazitako diruagaz Elorrioren jauregiak eregi ebezan». Altzerreka familiara be gerturatu da idazlea. «Miotakoa zan familia. Kalera bajatuko zan horreetariko bat, eta berak eregitako famili-

etxearen ganean eregi eban jauregia, Jose Alzerrekak XVII. mendean. «Jauregia, baina, senitartekoek gozatu eben urteetan».

XVIII. mende hasieratik XIX. menderako tarteak «ilun» dagoala dino Basterretxeak; baina, XIX-XX mendeetan, uria, 1. mailako turismo gune garrantzitsu bihurtu zala: «Bai-nuetxeei esker, 1840tik 1907ra eta kokapenagaitik 1907tik 1936ra». Alkarturen egoitzea danetik eukitako bidea be gogoratu dau azken atalean. Niko Moreno alkarteak beste alkarteak konbitatu ditu halako ikerketak egitera. «Laguntzeko gertu egongo gara», azaldu dau.



AITZIBER BASAURI
Alkartu alkartearen egoitzean egin dabe liburuxkearen